BURUZKO PROBLEMAK (bp 11)

1.- Gorkak bi metroko soka bat dauka. Hamar zati berdinetan mozten badu. Zenbat zentimetro neurtuko du zati bakoitzak?

2.- Saltzen duen egunkari bakoitzarengatik, dendari batek 20 zentimo irabazten du. Zenbat irabazi du gaur 40 egunkari saldu baldin baditu?

3.- Arkatza baten luzera 8 cm eta erdikoa bada. Zenbat neurtuko dute 10 arkatza, bata bestearen atzean jarrita?

4.- Iruneren autoak 100 kilometro egiteko 9 litro gasolina gastatzen du. Zenbat kilometro egin dezake 27 litrorekin?

5.- Hamar dozena arrautza erosi baditut. Zenbat arrautza erosi ditut?

6.- Zenbat da 45aren herena?

7.- Esne litro bat 1,5 euro balio badu, zenbat balioko du 2000 mililitro?

8.- Azken geltokian autobus batera 12 pertsona igo dira, orain 48 pertsona daude. Zenbat pertsona zeuden autobusean azken geltokitik pasatu baino lehen?

9.- Atzo 12:00 atera nintzen etxetik Artium museora joateko, 20 minutu eman nituen haraino joateko, eta 40 minutuko bisita egin eta gero, beste 20 minutu eman nituen etxera bueltatzeko. Zein orduan heldu nintzen etxera?

10.- Mercedes lantegiak hogei mila auto ekoizten ditu urte batean. Zenbat ekoiztuko ditu 5 urtetan?

liveworksheets.com